

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2022ko azaroaren 30a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:40

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieto, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Andoni Torres Fernandez zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.

Gai-zerrenda

- 1.- 2022ko udal-aurrekontuaren hirugarren hiruhilekoaren exekuzioaren berri ematea.
- 2.- 2022ko hirugarren hiruhilekoari dagokion ordaintzeko batez besteko epearen berri ematea.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Oriko Udalaren 2023ko Aurrekontu Orokorra eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko udal-araua.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2023ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Oriko Udalak Karela udal-kiroldegiko taberna-kafetegian baimendutako ostalaritza-zerbitzuak ustiatzeko administrazio-kontratua etetea, bi aldeek hala erabakita.
- 6.- Onartzea, egoki bada, udal-langileen ordainsarien 2022rako igoera eta kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udal-korporaziokideen ordainsarien igoera.
- 7.- Onartzea, egoki bada, hautapen-prozesuetan parte hartzeko tasa arautzen duen ordenantza fiskala indarrean jartzea.
- 8.- Ebaztea, egoki bada, M. Luisa Peñak eta M. Milagros Zuloagak 2017. urteko abenduaren 27ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa.
- 9.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- 2022KO UDAL-AURREKONTUAREN HIRUGARREN HIRUHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

2.-2022KO HIRUGARREN HIRUHILEKOARI DAGOKION ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

3.-ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2023KO AURREKONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO UDAL-ARAU.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2023ko aurrekontuaren eta horren exekuzioari buruzko udal-arauaren berri jasotzeaz gain, udalbatzarrak beste bi dokumentu hauen berri ere jasotzen du: idazkari-kontu-hartzaileak egindako aurrekontu-egonkortasuneko, iraunkortasun finantzarioko eta gastuaren erregelako helburuak betetzeari buruzko txostena, eta Orioko Udalak ematen dituen dirulaguntzen erregimen juridikoa arautzen duen udal-ordenantza.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko azaroaren 10, 17 eta 24an emandako diktamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalaren 2023ko aurrekontu orokorrari; hau da aurrekontuaren laburpena, kapituluka:

ORIOKO UDALAREN AURREKONTU PROPIOA

Sarrerren egoera

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	1.458.362
2	Zeharkako zergak	70.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.848.989
4	Transferentzia arruntak	5.416.710
5	Ondarezko diru-sarrerak	205.118
6	Inbertsio errealen besterentzea	40.000
GUZTIRA		9.039.179

Gastuen egoera

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Pertsonaleko gastuak	3.780.159
2	Gastuak ondasun eta zerbitzuetan	3.385.320
3	Finantzaketa-gastuak	6
4	Transferentzia arruntak	1.625.332
5	Kreditu globala	125.000
6	Inbertsio errealak	123.362
GUZTIRA		9.039.179

2.- ONARTZEA Udalaren aurrekontu propioa exekutatzeko udal-araua, 2023. urteari dagokiona, Udalak ematen dituen dirulaguntzen erregimen juridikoa arautzen duen ordenantza orokorrari buruzko eranskinarekin.

3.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udaleko 2023ko aurrekontu orokorra, aurrekontu propioa biltzen duena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoa betez; jendaurrean jartzea arau hauen arabera egiten da:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza-Kontu-hartzailetzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki-taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa, bulego-orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, aurrekontu orokorra behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean eta Ogasun- eta pertsonal-batzordearen presidentea den aldetik, eta poza adierazten du Udalaren aurrekontu orokorra aho batez onartu delako laugarren aldiz segidan. Adierazten du, baita ere, udal-aurrekontua lantzeko beste modu baten aurrean gaudela: gaia gardentasunez lantzen da udal-batzordeetan eta, gero, jasotako ekarpenak Ogasun eta pertsonal-batzordera eramaten dira eta han adosten dira. Esaten du, baita ere, nabarmendu nahi duela Udaleko lau talde politikoek aurrekontuaren eztabaidan erakutsi duten jarrera ona.

Alderdi formal horiez gain, alkateak hau adierazten du:

- Udalaren 2023ko aurrekontu propioaren helburua herri berdinzaleagoa, bidezkoagoa eta ekologikoagoa lortzea da.
- Udalaren 2023ko aurrekontu propioa %7,5 igo da iazkoarekiko.
- Gastuetako 1. kapitulua (Pertsonal-gastuak) %4 gehitu da.

- Gastuetako 2. kapituluan (Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak) energia- eta gas-horniduren arloko hainbat gehikuntza aurreikusten dira (adibidez, Orioko Karela udal-kiroldegian 100.000 euroko gainkostua aurreikusten da energia elektrikoaren eta gasaren horniduretarako); kale-garbiketako zerbitzua indartu egin da; ludotekaren eta gaztelekuaren aurrekontu-partidak berretsi egin dira; tren turistikoaren zerbitzua Udaletik kanpora ateratzea aurreikusten da; neurgailuak jarriko dira Aita Lertxundi kalean, kutsadura akustikoa neurtzeko, besteak beste; eta Udalaren kirol-instalazioen kudeaketa optimizatzeko ikerketa bat egitea ere aurreikusten da.
- Gastuetako 4. kapituluan (Transferentzia arruntak) nabarmendu behar da, alde batetik, Orioko Hirigune Historikoko Iturriaga eraikinean Etxe Morea egokitzeko aurrekontu-partida eta, bestetik, «Txalupan» programarena.
- Gastuen 5. kapituluan (Kreditu orokorra), guztira 125.000 euroko partida aurreikusi da, iraupen luzeko behin-behineko enplegua egonkortzeko prozesuen ondoriozko gainkostu ekonomikoak finantzatzeko.
- Gastuen 6. kapituluan (Inbertsio errealak), partida ireki ugari daude, 6 euroko zenbatekoarekin sortuak, zenbait obrak egiteko: irisgarritasuna hobetzeko edo energia-jasangarritasuna bultzatzeko, adibidez, motor elektrikodun ibilgailuak erosiz.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJ talde politikoaren izenean, eta besarkada handi bat bidaltzen dio Andoni Torres zinegotziari, 2023ko udal-aurrekontuaren lanketan egin duen ahaleginagatik. Azpimarratu behar da laugarren ekitaldi ekonomikoa dela aurrekontuak aho batez onartzen direna, eta nabarmentzen ditu bere talde politikoaren proposamenei esker aurrekontuan egin diren hobekuntzak: Anibarko Portuko hobekuntza-lanak, San Nikolas kalearen irisgarritasuna hobetzea eta abar, eta esaten du oraindik egiteko dagoela Antxiola kalearen irisgarritasuna hobetzeko lana.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hau ere adierazten du:

- Bere talde politikoak babes sendoa ematen diola Udalaren kirol-instalazioak optimizatzeko azterlana egiteari.
- Bere talde politikoak babes sendoa ematen diola Kosta tailerreko udal-instalazioak optimizatzeko azterlana egiteari.
- Nabarmena dela gizarte-zerbitzuen arloko partidak indartu eta gehitu egin direla.

Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du 2019-2023 agintaldi honetako aurrekontu guztiak aho batez onartu direla eta, beraz, guztion aurrekontuak direla eta, hortaz, ez zaiela sigla politikorik jarri behar.

Bestalde, zorionak ematen dizkio Anuska Esnal alkateari, inplikatu guztiei entzuteko erakutsi duen prestutasunagatik eta aurrekontu-proiektua beharrezko informazio guztiarekin aurkezteko egin duen lanagatik.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza eta adierazten du ez duela errepikatuko besteek esan dutena eta, beraz, kirol-gaiak aipatzera mugatuko dela. Adierazten du udal-agintaldi hau baldintzatua egon dela hasieratik bi konturengatik: alde batetik, kirol-teknikariari irekitako diziplina-espedientea eta, bestetik, Covid-19aren pandemia.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak adierazten du Udalaren kirol-instalazioak optimizatzeko azterlana egitearen alde dagoela, erabat, eta Orioko Karela udal-kiroldegian 100.000 euroko gailuzko aurreikusten dela 2023ko energia elektrikoa eta gasa hornitzeko.

Adierazten du, baita ere, Udalaren 2023ko aurrekontu propioa denbora errekorrean onartu dela, eta, horretarako, azaroan Ogasun- eta pertsonal-batzordeko hiru bilkura egin direla.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, eta adierazten du, beti bezala, arantza bat geratzen zaiola eta, ondorioz, galdera egiten dio EAJ talde politikoko zinegotzi bozeramaile Lourdes Salsamendiri: zer ekarpen egin ditu EAJk 2023ko udal-aurrekontu propioaren tramitazioan? Alkateak adierazten du, bere ustez, EAJren jokaera alderdikoia izan dela eta egin dituen lau ekarpenetatik bi ordurako aztertuta eta diktaminatuta zeudela batzorde informatzaileetan.

Aipatua izan denez, Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du soil-soilik nabarmendu nahi zuela EAJ talde politikoak 2023ko aurrekontu propioaren tramitazioan egindako lana.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2023KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERREDA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko azaroaren 17an emandako diktamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- ONARTZEA Orioko Udalaren 2023ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.

2.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udalaren 2023ko plantilla organikoa, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza-Kontu-hartzailletzan.

b) Espedientea aztertze eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki-taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa, bulego-orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, Orioko Udalaren 2022ko plantilla organikoa onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ARGITARATZEA plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, behin betikoz onartuta dagoenean, jendeak jakin dezan, Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden lege-xedapenen testuategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Eusko Legebiltzarreko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betez.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAK KARELA UDAL-KIROLDEGIKO TABERNA-KAFETEGIAN BAIMENDUTAKO OSTALARITZA-ZERBITZUAK USTIATZEKO ADMINISTRAZIO-KONTRATUA ETETEA, BI ALDEEK HALA ERABAKITA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko azaroaren 24an emandako diktamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Orioko Udalak Karela udal-kiroldegiko taberna-kafetegian baimendutako ostalaritza-zerbitzuak ustiatzeko administrazio-kontratua etetea, MARIA LORETO POZO GONZALEZ adjudikaziodunarekin ados jarrita.

Horrenbestez, MARIA LORETO POZO GONZALEZEK 3.601,90 euroko kontraprestazio ekonomikoa jaso beharko du 2022ko abenduaren 31 baino lehen.

Emandako botoa azaltzeko, Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeko presidentea den aldetik, eta adierazten du, udalbatzarraren erabaki hau exekutatzuz, itxi egin dela Orioko Karela udal-kiroldegiko taberna-kafetegia. Adierazten du, baita ere, berriro irekitzeko eskaera egin diotela kiroldegian dabilzan haurren gurasoek, baina, horren aurretik, Udalaren kirol-instalazioak optimizatzeko azterlana egin behar dela eta horien artean dagoela taberna-kafetegi hori ere, hutsune ugari dituen, ondo aztertu behar direnak; besteak beste, asko berotzen dela.

Bukatzeko, Anuska Esnal alkateak eskerrak ematen dizkio Orioko Karela udal-kiroldegiko taberna-kafetegiko adjudikaziodun MARIA LORETO POZO GONZALEZi eta aurrerantzean zorte ona izatea opa dio ibilbide profesional berrian.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-LANGILEEN ORDAINSARIEN 2022RAKO IGOERA ETA KARGUA DEDIKAZIO OSOAREKIN EDO PARTZIALAREKIN BETETZEN DUTEN UDAL-KORPORAZIOKIDEEN ORDAINSARIEN IGOERA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Igoera horren oinarrian sektore publikoko ordainsarien alorrean premiazko neurriak onartzen dituen 18/2022 Legegintzako Errege Dekretuaren 23. artikuluan ezarritakoa dago.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Pertsonal-batzordeak 2022ko azaroaren 17an emandako diktamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA udal-langileen ordainsarien eta kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udal-korporaziokideen ordainsarien %1,5eko igoera gehigarria, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden urteko ordainsari osoekiko. Igoera horrek 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.

2022. urterako ordainsarien guztirako igoera ezin izango da % 3,5eko soldata-igoera baino handiagoa izan, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden urteko ordainsari osoekiko.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, HAUTAPEN-PROZESUETAN PARTE HARTZEKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA INDARREAN JARTZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Pertsonal-batzordeak 2022ko azaroaren 17an emandako diktamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA hautapen-prozesuetan parte hartzeko tasa arautzen duen ordenantza fiskala indarrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta berehala.

8.- EBAZTEA, EGOKI BADA, M. LUISA PEÑAK ETA M. MILAGROS ZULOAGAK 2017. URTEKO ABENDUAREN 27KO OSOKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA.

I. SARRERA

2018ko otsailaren 27an (311 erregistro-zenbakia), M. Luisa Peña Sarasua andreak eta M. Milagros Zuloaga Uranga andreak berraztertzeko errekurtsua jarri zuten osoko bilkuraren 2017ko abenduaren 27ko erabakiaren aurka. Horren arabera, honako hau erabaki zen:

1.- PARTZIALKI ONTZAT HARTZEA M. Luisa Peña Sarasuak eta M. Milagros Zuloaga Urangak aurkeztutako alegazioak, zentzu honetan: <<14 Erretzabal-Munioeta>> bide publikoaren bi pasaerak (Etxaiz baserriaren ekialdekoa eta mendebaldekoa) izaera publikoa dutela ezartzen da, udal idazkaritzak 2017ko azaroaren 16ko txostenean azaldutako arrazoiengatik.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, beraz, Orioko bide publikoen inbentarioa, udalbatzarrak 2016ko abenduaren 27ko ohiko bilkuran hartutako lehen onarpeneko erabakiaren termino beretan, aldaketa bakar honekin: <<14 Erretzabal-Munioeta>> bide publikoaren bi pasaerak (Etxaiz baserriaren ekialdekoa eta mendebaldekoa) izaera publikoa dutela ezartzen da. Hori guztia udal idazkaritzak 2017ko azaroaren 16ko txostenean proposatutako terminoetan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua aplikatuz, administrazioak berariazko ebazpena eman eta jakinarazi behar du prozedura guztietan.

II. GERTAKARIAK

Administrazio-espedientea aztertu ondoren, honako gertakari hauek nabarmendu behar dira:

1.- 2011ko abenduaren 29ko osoko bilkuraren erabakiz, Orioko Udalak, dagokion udal-izapidea egin ondoren, behin betiko onartu zuen Bideen Inbentarioa. Inbentarioan, 14. bide publikoa, «Errezabal-Munioeta», Etxeizarra baserriaren mendebaldean kokatu zen.

Behin betiko onartzeko osoko bilkuraren erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri zen. 116/2014 Epaiaren bidez, udal-inbentarioa behin betiko onartzeko egintza zuzenbidearekin bat ez zetorrela adierazi zen, udal-idazkariaren txosten juridikorik ez zegoelako. Beraz, 14. bide publikoari dagokionez inbentarioa berriz izapidetu da, proposatutako aldaketekin batera.

2.- 2015eko irailaren 24an, 1246 erregistro-zenbakiarekin, Maria Luisa Aranburu Alkortak idatzi bat aurkeztu zuen, bidearen trazadurarekin ados ez zegoela adieraziz, eta, nolanahi ere, bidea ekialdetik zihoala adieraziz.

321 zenbakidun erregistro-finkaren jabetza-eskriturak (Etxaiz baserriaren mendebaldea) eta Etxaiz baserriaren argazkiak aurkeztu zituen.

3.- Egindako eskaeran oinarrituta, Orioko Udalak txosten teknikoa eskatu zion Ondasunen Inbentarioaren idazleari, Conchi Uriarteri.

4.- 2016ko irailaren 22an (2016ko irailaren 22ko 1317. erregistroa), Conchi Uriartek txosten teknikoa aurkeztu zuen, Etxaiz baserriaren ekialdeko aldetik 14. bidearen trazadura aldatzea proposatuz, honako argudio hauetan oinarrituta:

- a) Planoetan eta ortoargazkietan bidearen hegoaldeko trazadura irudikatzen da. Hala ere, iparralderantz jarraitzeari dagokionez, 1942ko planoan ekialderantz eta 1966an mendebalderantz jasotzen dela ikus daiteke.

1946 eta 1954ko ortoargazkietan baserriaren alde guztietan bideak sumatzen dira, eta hori normala da bi etxebizitza daudelako.

- b) Etxaiz baserriko finka banatzeko 1884ko eskrituretan, ekialdeko eta mendebaldeko lurren arteko muga gisa balio duen zortasun-bide bat aipatzen da, baina ez du ez zehazten ez eranstean bere ibilbidearen planorik.
- c) Azkenik, Xabier Alberdi historialariak egindako txostena hartu da bidea definitzeko irizpidetzat, honako hau defendatuz:

«Horrela, baserriaren ekialdean sektore noblea edo nagusia izan denez, ondoriozta daiteke bide publikoa baserriaren ekialdetik egin zela.»

- d) Baliozkotzat jo dira M. Luisa Peña Sarasuak adierazitakoa (ekialdea), adierazten baitu bidea eraikinaren hegoaldeko fatxadaraino zihoala eta adarra ez dela bide publikoa.

5.- 2016ko abenduaren 27ko osoko bilkuraren erabakiz, hasierako onarpena eman zitzaion 2011ko abenduan idatzitako Orioko Inbentario Publikoari, bai eta Errezabal-Munioeta 14 bide publikoaren trazadurari buruzko bi aldaketei ere. Erabakia 2017ko maiatzaren 5eko GAO-n (85. zk.) argitaratu zen, eta jendaurrean jarri zen 30 egunez.

6.- 2017ko ekainaren 1ean, M. Luisa Peña Sarasua andreak eta M. Milagros Zuloaga Uranga andreak alegazioak aurkeztu zituzten, trazadura berriarekin ados ez zeudela adierazteko, argudio hauetan oinarrituta:

- Baserrien iparralderanzko bidearen jarraitutasuna baserrien mendebaldetik egin da beti.

- Conchi Uriarte txostena egitean, ez zen harremanetan jarri Etxaiz baserriaren jabeekin; zehazki, Etxaiz baserrian jaio zen M. Luisa Peñarekin. María Luisa Aranburu, berriz, baserrira iritsi zen ezkontzera.
- Hegoaldetik datorren bide publikoa baserrien hegoaldeko fatxadan amaitzen da, ez du jarraipenik. Perituak adarra deitzen duena baratzerako sarbidea baino ez da, eta ez Etxaiz baserrira, eta hau pribatua da.
- Txosten historikoan adierazten den gauza bakarra da Etxaiz baserria dela baserriaren gune noblea. Txosten honetan ez da ezer esaten sarbideei, bideei eta zortasunei buruz.
- 1942ko planoak. Ez du kalitatezko informaziorik ematen. Baserria geziarekin markatzen den lekuan egongo balitz, bidea bi baserrien erditik igaroko litzateke, ez ekialdetik. Planoaren kurba bakarra mendebalderantz doa, ekialderantz itzultzeko. Beraz, baieztapen horrek ez du oinarririk
- 1966. planoak.- Bideak baserriaren mendebaldetik inguratzen duela argi ikusten da
- 1946. planoak.- Bideak baserria mendebaldetik inguratzen duela argi ikusten da.
- 1954. planoak.- Bideak baserria mendebaldetik inguratzen duela argi ikusten da. Bidea legarrez edo hormigoiz egokituta dago. Adarra, ordea, lurreko sarbide hutsa da. Perituak, ortoargazkiak aztertuta, ondorioztatzen du baserrietara hegoaldetik iristen den bide bat dagoela, baina ez du ezer esaten baserria mendebaldetik inguratzen duen bideari buruz.
- Aztertutako eskrituretan, Langueta lursaila deskribatzean, ekialdetik zortasun-bidearekin muga egiten duela adierazten du.
- Ondorioztatzen du ukaezina dela baserrirako sarbidea hegoaldeko zortasun-bidetik zetorrela. Baserria zatitu zenean, iparraldeko fatxadarako sarbidea mendebaldetik egin zen; izan ere, ukuilua eta biltegiatze-eremua iparraldean zeudenez, abereak, idiak, traktorea, jarduera guztia eraikinaren atzealdean egiten zen, EZ eraikinaren zati noblean (ekialdean)..
- Ondorioz, bi baserriek mendebaldea erabili dute iparraldera joateko eta beren jarduera garatzeko.

7.- 2017ko urriaren 20an, Conchi Uriartek bere txostena berretsi zuen.

8.- 2017ko urriaren 23an, udal-arkitektoak txostena egin zuen, honako hau adieraziz: gaia argitzeko zailtasuna, mendebaldeko bidea baldintza hobeetan zegoela eta horregatik erabiltzen zutela bi bizilagunek, 1954ko ortoargazkian ez dagoela argi bidea ekialdetik edo mendebaldetik igarotzen zen, eta ekialdeko bidea ere erabiltzen zela.

Azkenik, bi trazadurak, ekialdetik eta mendebaldetik, inbentarioan sartzea proposatu zuen.

9.- 2017ko azaroaren 16an, txosten juridikoa egin zuten Administrazio Orokorreko teknikariak eta udal-idazkariak, eta honako alderdi hauek nabarmendu zituzten:

- a) Espedientean dauden agirietan **ez dago elementu erabakigarriarik** Etxaiz baserriko bide publikoren (ekialdetik edo mendebaldetik) pasabidea modu frogagarrian zehazten laguntzeko.
- b) Etxaiz baserriko finkaren zatiketa-eskrituretan, 1884. urtean, zortasun-bide bati buruz hitz egiten da, ekialdeko eta mendebaldeko lurren muga gisa balio duena, baina ez du ibilbidea zehazten, ezta planorik jasotzen ere.
- c) 1946. eta 1954. urteetako planoetan eta ortoargazkietan alde guztietako bideak ikusten dira, eta, beraz, bide publikoa aipatutako baserritik bi aldeetatik igaro dela ondorioztatzen dute. Ondorioz, pasabidearen izaera publikoa ekialdetik zein mendebaldetik ezartzea proposatu zuen.
- d) Bidearen desafektazioa aztertzea proposatzen dute, A-8 autobidea egitearekin batera moztu eta eten egin zelako eta gaur egun ez duelako erabilera edo aprobetxamendu publikorik.

10.- 2017ko abenduaren 27ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, M. Luisa Peña Sarasua eta M. Milagros Zuloaga Uranga andreek aurkeztutako alegazioak partzialki baiestea erabaki zen, Etxaiz baserriaren ekialdetik eta mendebaldetik igarotzea izaera publikoa ezartzeko eta inbentarioa behin betiko onartzeko, hasierako onespeneraren erabakiaren arabera, bide publikoa Etxaiz baserriaren ekialdetik eta mendebaldetik sartuta.

Erabakia 2018ko otsailaren 19ko GAOⁿ (35. zk.) argitaratu zen.

12.- 2018ko otsailaren 27an, M. Luisa Peña eta M. Milagros Zuloaga andreek berraztertze errekurtsoa jarri zuten bideen inbentarioa behin betiko onartzeko erabakiaren aurka.

13.- 2018ko apirilaren 3an, udal-arkitektoak txostena egin zuen proposatutako berraztertze errekurtsoari buruz, eta adierazi zuen 1880tik aurrera bi baserri ezberdin daudela eta bai ekialdetik bai mendebaldetik bidea zegoela, eta bere ustez bi bideek izaera bera dutela.

Hala ere, 2017ko txostenean adierazi zuen bezala, bideak (ekialdekoak zein mendebaldekoak) ez dira erabilera publikokoak, **eta, beraz, desafektazioa eskatzen du.**

14.- 2021eko urriaren 29an, txosten teknikoa eskatu zitzaion TEKNILUR VALORACIONES SL enpresari, Etxaiz baserriaren inguruko bide publikoaren trazadura aztertzeko. Txostenaren ondorioak honako hauek dira:

- Badira izaera publikoaren elementu erabakigarriak, Igeldotik Oriorako errepidea A-8 autobidearen hegoaldean, Etxaiz baserriaren parean, eta Etxaiz-Zaharra baserriaren inguruan dagoen Errezabal-Munioeta 14. zenbakiko bidearen gainean.
- Arazoa Etxaiz baserriaren inguruko bide-zatian dago, zehazki, bide horren jarraitutasuna ekialdeko fatxadatik eta/edo mendebaldekotatik bazen.
- 2011ko abenduaren 29an behin betiko onartutako inbentarioan, bidea baserriaren mendebaldetik igarotzen zen, eta lau urtez ez zen inolako kexarik edo erreklamaziorik aurkeztu.
- 2011ko inbentarioa idazteko ardura duen teknikariak irizpidea aldatu zuen, eta trazadura Xabier Alberdiren azterlan batean oinarrituta egitea proposatuz. Azterlan horretan, **«ningún momento relaciona el hecho de que la parte Oriental del caserío haya sido el sector noble o principal del caserío con el paso del camino público por dicha fachada»**.
- Plano zaharrean, 1942koan, egindako txertaketa oso konplexua da, eta gainjartzearen emaitzak erabat alda daitezke erreferentzia gisa 1942tik gaur arte aldaketarik izan ez duten eraikinak edo puntuak hartzen badira.
- Inbentariatutako bideen trazadurak kontuan hartuta, lehen inbentarioan jasotako bidea askoz ere logikoagoa eta probableagoa da, baserriaren mendebaldetik doana, 1942ko plano horren antzeko bira-erradioak eta trazadurak dituelako.
- Azken 75 urteetako argazkien azterketa historikotik ondoriozta daitekeenez, baserriaren lau aldeetako bidearen aztarnak daude.
- Plano topografikoei dagokienez: 1966ko planoan, bidea mendebaldetik dago, eta ekialdeko adarra ere agertzen da; 1970eko Aldundiaren planoan, ekialdetik agertzen da, baina teknikariak «zalantzagarriztat» jotzen du (txostenaren 52. orrialdea)
- Lizentzia bat eman zen Etxaiz baserriaren ekialdean kokatutako baserria egiteko, eta haren ekialdean bide publikorik balego, **Errepide eta Bideen Foru Araua kontuan hartuta, lizentzia hori eman ezin izango zen**.

Laburbilduz, txostenaren 55. orrialdean honela amaitzen da:

*Teniendo en cuenta toda la documentación analizada consistente en planos, fotografías aéreas, expedientes expropiatorios, Informes Técnicos, así como las conversaciones mantenidas con las partes, **si bien es cierto que existen indicios de uso a lo largo de los años de todo el contorno del Caserío para el paso de personas y vehículos, y que no se ha llegado a acreditar el uso público preferente de ninguno de los dos caminos. EL ANÁLISIS DE LOS TRAZADOS DE AMBOS CAMINOS, LA OROGRAFÍA DE LOS MISMOS Y SUS TRAZADOS, ASÍ COMO LAS CONEXIONES AL RESTO DE CAMINOS PÚBLICOS DEL ENTORNO Y LA EMISIÓN DE LA LICENCIA DEL CASERÍO UBICADO AL ESTE DEL CºETXAIZ, SEÑALAN EL CAMINO QUE DISCURRE AL OESTE DEL CASERÍO ETXAIZ, EL SEÑALADO E INVENTARIADO EN EL PRIMER INVENTARIO DE CAMINOS PÚBLICOS DE ORIO, COMO EL MÁS LÓGICO Y RACIONAL.***

*Por tanto, el Perito que suscribe concluye que **NO EXISTEN RAZONES LO SUFICIENTEMENTE CLARAS Y OBJETIVAS** que justifiquen la modificación del Inventario de Caminos Públicos realizada en base a la documentación aportada con posterioridad al expediente, **DOCUMENTACIÓN APORTADA FUERA DE PLAZO (4 AÑOS DESPUÉS)**; y por tanto **NO DEBERÍA HABERSE PROCEDIDO A LA MODIFICACIÓN DE DICHO INVENTARIO POR NO ENCONTRARSE SUFICIENTEMENTE ACREDITADA.***

*Por otra parte, y atendiendo a la situación actual del inventario y a la vista de los Informes Técnicos elaborados por los Técnicos y Servicios Jurídicos del Ayuntamiento de Orio **SE DEBERÍA PROCEDER A LA DESAFECCIÓN DE AMBOS CAMINOS DEL INVENTARIO DE CAMINOS PÚBLICOS DE ORIO YA QUE TAL Y COMO SE HA ACREDITADO EL USO DE LOS MISMOS DESDE LA EJECUCIÓN DE LA AUTOPISTA A-8 ES ÚNICAMENTE EFECTUADO POR LOS PROPIETARIOS DE LOS CASERÍOS ETXAIZ Y ETXAIZ-ZARRA.***

15.- Alkatetzaren irailaren 26ko 650/2022 Dekretuaren bidez, M. Luisa Aranburu andreari 15 eguneko epea eman zitzaion M. Luisa Peña eta M. Milagros Zuloaga andreek jarritako berraztertze errekurtsoari buruz egoki iritzitakoa alegatzeko.

16.- 2022ko urriaren 7an, María Luisa Aranburu Alcorta andreak adierazi zuen berraztertze errekurtsoak ez duela «ez bururik, ez hankarik», alderdi hori 2017ko abenduaren 27ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez ebatzi zela, eta argudio horiek direla zuzenak.

III. EGINDAKO ERREKURTSOAREN EDUKIA

Aurkeztutako berraztertze errekurtsoan honako alderdi hauek alegatzen dira:

1.- 2011ko abenduaren 29ko osoko bilkuraren erabakiz onartutako Bide Publikoen Inbentarioan, bide publiko gisa zortasun-bide bat markatu zen, baita Etxaiz baserriaren aldeko bide-zorra ere, Etxaizarra baserriaren mendebaldetik.

2.- Errekurtso-egileek eta Etxaizarra baserriaren jabeek ez zuten inbentarioaren aurkako errekurtsorik aurkeztu.

3.- M. Luisa Aramburu andreak eskatuta, bidearen trazatua aldatu egin zen baserriaren ekialdetik, eta espedientearen hasieran aztertu ez zen dokumentu edo gertaera berririk aurkeztu gabe.

4.- Horregatik, egoera berdinen aurrean, Udalak beste modu batera jokatu du.

5.- «Ekialdeko pasabidea» bide publikoa dela justifikatzeko Auzitegi Gorenaren 1989ko irailaren 29ko Epaia eskatzen dituen irizpideak ez dira betetzen.

6.- Conchi Uriarte teknikariaren txostenak aztertzen ditu, eta uste du bere argudioekin ezin dela ondorioztatu bide publikoa ekialdetik doala, honako arrazoi hauengatik:

- Txostenaren 10. orrialdean adierazten duenez, «gai hori argitzeko, baliozkotzat jo dira M. Luisa Peña Sarasua andreak (ekialdea) adierazitakoak, adierazten baitu bidea eraikinaren hegoaldeko fatxadaraino zihoala eta adarra ez dela bide publikoa».
- Xabier Alberdi historialariaren txostenean oinarrituta ateratako ondorioak susmo soilak dira.
- 1942ko planoari buruz egindako azterketa ez da zuzena, plano horretan ez baitago Etxaiz baserria; beraz, ezin da ondorioztatu bidea ekialdetik doanik.
- 1954ko ortofotoari dagokionez, teknikak ez du esaten bidearen trazadurak baserriaren mendebaldeko fatxadarantz egiten duenik beti. Trazadura hori zolatuta dagoen bakarra da.
- 1966ko planoan, bidea argi dago mendebaldetik, eta pribatua dela onartu den adarra marrazten da.
- Francisco Antonio Lertxundi jaunaren jaraunspen-zatiketan, Langueta lursaila deskribatzean, adierazten da ekialdetik zortasun-bidearekin muga egiten duela (etengabe aipatzen dena).
- Hegoaldeko fatxadaraino iristen den bidean udalak egin dituen konponketa- eta kanalizazio-obrei dagokienez, ez du inoiz baserriaren ekialdean jardun

7.- Udal-arkitektoaren 2017ko urriaren 23ko txostena aztertzen du. Txosten horretan adierazten denez, 2011n mendebaldeko adarra sartu zen, egoera hobean zegoelako; hala ere, alderdiek egindako alegazioetan ez da jatorrizko espedienteari buruzko dokumentazio gehigarrik aurkeztu.

Horregatik, errekurtsoan azpimarratzen da EZ dagoela udal-irizpidea aldatzea justifikatzen duen datu edo dokumentu berririk.

8.- Administrazio orokorreko teknikariak eta Udaleko idazkariak sinatutako txostenari dagokionez, adierazi du txosten horretan ez dagoela elementu erabakigarriarik bide publikoa (ekialdetik edo mendebaldetik) Etxaiz bidetik modu frogagarrian igarotzen dela zehazteko.

9.- Proposatutako trazadura berria baserriaren eta etxe berriaren artean dago. Lizentzia lursail pribatuen gainean eman zen, eta Udalak ez zuen inolako aipamenik egin eraikitzeke erabiliko ziren lursail publikoen izaerari buruz.

10.- Udalaren erabakiaren deuseztasuna edo deuseztagarritasuna alegatzen du, Konstituzioaren 9. eta 33. artikuluen babesean jabetza pribatuaren eskubidea urratzen baitu.

11.- Udala modu arbitrarioan jabetuko litzateke titulartasun pribatuko lursail batzuez, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen tramitazioa errespetatu gabe..

IV. AZTERKETA JURIDIKOA

Ondasunen inbentarioaren eraketa, bai nahitaezotasunari, eraketari eta edukiari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Araubidearen arloko Xedapenen Testu Bateginean eta ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduan oinarritzen da.

Inbentarioa idazteko betebeharra Toki Araubidearen arloko Lege Xedapenen Testu Bateginaren 86. artikulutik eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduen 17. Artikulu eta hurrengoetatik ondorioztatzen da. Artikulu horien arabera:

Toki-korporazioak behartuta daude beren ondasun eta eskubide guztien inbentarioa – baloratua – egitera, haien izaera edo eskuratzeko modua edozein dela ere.

Udal Ondarearen ezagutza zehatza izateko sobera justifikatzen du inbentario bat egiteko beharra.

Dokumentu hori, berez, etengabeko oroigarria da Udalbatzak bere ondasunen gainean dagozkion ahalmenak behar bezala erabil eta kudea ditzan.

Hala ere, jurisprudentziak (1978ko ekainaren 9ko AGE) ezartzen duenez, **«la inclusión de un bien en un inventario de bienes, por sí solo, no prueba, ni crea, ni constituye derecho alguno a favor de las Corporaciones».**

Inbentarioaren garrantzia da **jabari-itxura bat sortzea**, jabetza-akzioak aurrez epaitzen ez dituen, alderdi hori jurisdikzio zibilari baitagokio.

Hori dela eta, **jurisdikzio zibilak du bideen jabetza-eskubideari buruzko gaiak modu eskusiboan ebazteko eskumena** (Auzitegi Gorenaren 1995eko abenduaren 22ko epaia). Auzitegi Gorenaren 1998ko urriaren 14ko epaiak honela dio:

*«la competencia de esta jurisdicción, (la contenciosa), ha de limitarse a enjuiciar el correcto ejercicio por parte de los Entes Locales de las **facultades recuperatorias** que se les atribuye por el artículo 82.a) de la Ley 7/85 y los artículos 70 y 71 del Reglamento de Bienes, **quedando reservada la decisión sobre la propiedad o posesión definitiva de los mismos a los Tribunales de la jurisdicción civil**».*

Azken batean, administrazio-auzitegien kontrola akordioen legezkotasuna berrikustera mugatzen da, batez ere alderdi formalari eta prozedurazkoari dagokienez, **ea administrazioak, ondasuna sartzerakoan, oinarri juridikoa duten presuntzioetan oinarritzen den zehazteko.**

Ildo horretan, nabarmentzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2009ko otsailaren 16ko epaia, 534/2007 apelazioan emana, honako hau adierazten duena::

*«La formación del inventario **es una tarea administrativa interna de las Entidades Locales** que viene normativamente referida a la totalidad de sus bienes, como nos ilustran los artículos 17 a 36 del Reglamento de Bienes aprobado por Real Decreto 1.372/1.986. El rigor que debe presidir, por tanto, la inclusión de los bienes inmuebles de dominio público en tal registro interno y no productor por sí mismo de presunciones posesorias ni dominicales, está vinculado, **por ello a la racional y propia convicción que la Entidad Local albergue de que el bien forma parte del patrimonio o del demanio municipal, y que ha de ser por ello conservado o tutelado**. Ahora bien, tal inventario carece de toda eficacia o consecuencia de cara a la esfera administrativa y aún jurídico-patrimonial de los particulares y lo que no cabe es que, con motivo de publicarse los bienes que incluye, y so pretexto de que se hacen declaraciones de dominio, promover impugnaciones de tal inventario que tomen como presupuesto erróneo que tal inventario es lo que no es, es decir manifestación del ejercicio de una acción interdictal municipal recuperatoria de la posesión en régimen de autotutela».*

Azttertzen ari garen kasuaren antzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2014ko uztailaren 29ko epaian emandako epaia, bere zuzenbideko bigarren oinarrian:

*«(...) **No hay, así, entre los títulos confrontados uno que acredite de forma indiscutible o que no sea razonablemente discutible la titularidad pública del bien**. Y la propia sentencia de instancia no es que haga una valoración positiva de los documentos e informes presentados por el Ayuntamiento en pro de la demanialidad del bien y/o negativa de los documentos presentados por el recurrente para acreditar la pertenencia del terreno antes destinado a camino , sino que resuelve la controversia dando al Inventario de bienes un valor probatorio que no es*

*propio de ese instrumento, no de publicidad sino de gestión patrimonial, y **que además no se compadece con el destino del bien a un uso privativo, a saber, si fundado o no en un justo título, lo que no corresponde dilucidar a esta Jurisdicción sino a la civil.***

*Para que un bien o derecho pueda calificarse como perteneciente al dominio público **es necesario que siendo de titularidad pública se encuentre afectado al uso general o al servicio público** o que una ley les otorgue expresamente ese carácter (artículo 5-1 de la Ley 33/2003 de patrimonio de las Administraciones Públicas); este es el caso de los caminos, calles o paseos, entre otros, que se destinen al uso público local (artículo 3-1 del RD. 1372/1986).*

*Pues bien, el terreno a que se contrae el ejercicio de la acción recuperatoria **no puede considerarse destinado al uso público local en mérito a su inclusión en el Inventario municipal** porque así en el año 1999 cuando se aprobó esa Relación de bienes, como con anterioridad y posterioridad a ese acto, **el uso del terreno era privado y no público**, tal como acreditan actos propios de la entidad local ».*

Bideen inbentarioetan egindako aldaketei dagokienez, nabarmentzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2018ko uztailaren 6ko Epaia, zuzenbideko bigarren oinarrian honako hau adierazten duena:

*En segundo lugar, y como consecuencia de ello, la contradicción que con alcance legítimo puedan desplegar los particulares, vecinos, e interesados, no puede ir más allá ni trascender a ese objeto y finalidad del inventario, lo que tiene una particular proyección negativa sobre la pretensión de que el Ayuntamiento deba hacerse eco de la existencia o incluya otros diferentes caminos o tramos con carácter público demanial, sustituyendo esa convicción municipal por la propia de los referidos interesados. La orientación general que **la rectificación del inventario puede válidamente ofrecer, en suma, es la de que se pongan de relieve con ella errores crasos o manifiestos en la selección o trazado de los bienes inmuebles** que positivamente se hagan objeto de registro administrativo y de descripción, pero **no puede constituir cauce idóneo para un replanteamiento de raíz sobre qué caminos son públicos y cuales son privados en el municipio**, ni, como en este caso ocurre, escenario apto para que el Ayuntamiento venga compelido **a incluir en el inventario de bienes públicos caminos cuya existencia no le consta o no comparte**, (con base incluso en elementos jurisdiccionales previos), y promovido todo ello en base a complejas operaciones jurídico-administrativas intermedias de revisión de lo que un deslinde determinase, o de cómo un antiguo acuerdo municipal debiese interpretarse, de manera tal que la impugnación de un instrumento tan escasamente relevante en sus afecciones a terceros, termine paradójicamente, por ser el ámbito de examen y revisión histórica de cuantas anteriores fases de controversia y de delimitación administrativa o civil se hayan dado en el tiempo.*

Por tanto, por más razones en pro que la parte recurrente deduzca de su propia investigación técnica para afirmar que ha existido un camino público que, como

fruto de la convergencia de los otros tres, discurre por delante de la CASA000, no se está en el marco en que dicha afirmación puede hacerse valer de manera eficaz, siendo otros los medios de orden posesorio o declarativo de propiedad que están llamados a contemplar esas pretensiones.

V. ONDORIOAK

1.- Ondasunen inbentarioa administrazio-erregistro bat da, eta etengabeko oroigarria da, Korporazioak bere ondasunak kontserbatzeko eta zaintzeko ahalmena behar bezala egikaritu ahal izateko.

2.- Ondasun bat inbentarioan sartzea lotuta dago **administrazioak berak uste duelako ondasuna ondare publikoaren parte dela** eta kontserbatu edo babestu egin behar dela.

3.- Ondasun bat ondasunen inbentario batean sartzeak, berez, ez du frogatzen eta ez du inolako eskubiderik sortzen udalaren alde.

4.- Inbentarioak herri-jabariaren itxura sortzen du, baina jurisdikzio zibilak du **bideen jabetza-eskubideari buruzko gaiak modu eskusiboan ebazteko eskumena**.

5.- Ondasun bat jabari publikotzat kalifikatu ahal izateko, beharrezkoa da **titulartasun publikokoa izanik erabilera orokorrari edo zerbitzu publikoari atxikita egotea**.

6.- Dagokigun kasuan, **EZ dago froga eztabaidea** Errezabal-Munizabal 14 bidearen jarraipena, Etxaiz baserriaren parean, ekialdeko edo mendebaldeko fatxadaren egin zela egiaztatzen duenik. Baieztatzen hori txosten hauetan oinarritzen da:

A) Udal-arkitektoaren txostenak, 2017ko azaroaren 23koa eta 2018ko apirilaren 3koa.

B) TAGen eta udal-idazkariaren txostena, 2017ko azaroaren 16koa.

C) TEKNILUREn txostena, 2021eko urriaren 29koa.

7.- Conchi Uriarte inbentarioaren idazleak 2016ko irailaren 22an eta 2017ko urriaren 20an egindako txostenak ere ez dira eztabaidea 2011n lehen trazaduraren idazketan akats nabarmenak egon zirela frogatzen duten datuen ekarpenari dagokionez.

8.- Trazaduretako bat ere ez dago (ekialdea eta mendebaldea) erabilera orokorrerako edo zerbitzu publikorako bideratuta.

9.- AOTen eta udal-idazkariaren 2017ko azaroaren 16ko, 2018ko apirilaren 3ko udal-arkitektoaren eta TEKNILUREn txostenetan adierazten denez, gaur egun, bide osoa, bi sarbideak barne (ekialdea edo mendebaldea), **EZ daude erabilera publikorako bideratuta, erabilera pribaturako baizik**. Ondorioz, **desafektazioa eskatzen dute**.

10.- Espedientean ez dago jasota Orioko Udalak aipatutako sarbideetan obrarik edo mantentze-lanik egin duenik.

Laburbilduz, EZ dago elementu eztaba daezinik zehazteko bide publikorik dagoela Etxaiz baserriaren ekialdean edo mendebaldean, aipatutako “bide” horiek ez daude erabilera edo zerbitzu publikorako bideratuta eta Orioko Udalak ez dauka eskumenik bideen jabetza-eskubideari buruzko gaiak ebazteko.

Horrenbestez, Nekane Azarola Martinez abokatuak 2022ko azaroaren 21ean emandako txosten juridikoaren arabera, Orioko Udalbatzarrari **PROPOSATZEN ZAIO** honako erabakiak hartzea:

1. **Baiestea** M. Luisa Peña eta Milagros Zuloaga andreek osoko bilkuraren 2017ko abenduaren 27ko erabakiaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa.
2. Errekurtsoa baietsi denez, ondasunen inbentariotik **kanpo uztea** «Etxazabal-Munioeta» 14 bide publikotik Etxaiz baserriaren ekialdeko igarobidea.
3. Errekurtsoa baiesteko irizpideak Etxaiz baserriaren mendebaldeko pasabidean ere aplika daitezke. Ondorioz, Udalbatzak, koherentziaz, sarbide horren (mendebaldea) inbentariotik **kanpo uztea ere baloratu** beharko luke.
4. Bi sarbideak inbentariotik kanpo uztea erabakitzen bada, egokitzen jotzen da —segurtasun juridikoa dela eta— inbentarioari beste onarpen bat ematea eta berriz jendaurrean jartzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza-batzordeak 2022ko azaroaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

- 1.- **BAIESTEA** M. Luisa Peña eta Milagros Zuloaga andreek osoko bilkuraren 2017ko abenduaren 27ko erabakiaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa.
- 2.- Errekurtsoa baietsi denez, ondasunen inbentariotik **KANPO UZTEA** «Etxazabal-Munioeta» 14 bide publikotik Etxaiz baserriaren ekialdeko igarobidea.
- 3.- Errekurtsoa baiesteko irizpideak Etxaiz baserriaren mendebaldeko pasabidean ere aplika daitezke. Ondorioz, **KANPO UZTEA** «Etxazabal-Munioeta» 14 bide publikotik Etxaiz baserriaren mendebaldeko igarobidea.
- 4.- Bi sarbideak inbentariotik kanpo uztea erabaki denez, egokitzen jotzen da —segurtasun juridikoa dela eta— inbentarioari beste onarpen bat ematea eta berriz jendaurrean jartzea.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari edo galderarik izan.

Udalbatzarra bukatutzat eman baino lehen, Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, eta adierazten du oso pozik dagoela osoko bilkura honetako gai-zerrendako erabaki guztiak aho batez onartu direlako. Adierazten du, baita ere, aurten normaltasunez ospatu ahal izango direla San Nikolas jaiak eta lehenengo aldia izango dela, 2019-2023 agintaldi honetan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,